

Cantac Berriac

GABONERACUAC


Bedertzi egunian cantateco



MARIJESIAC
BURUS EUQUITECO DIRENAC



1919



GABON CANTAC

Jesusen Jayotzaco canta berriac

Lau eguneraeo

1

Abendu santu onetan
Cristoren jayotzea
contentuaren aundis
gus.ioc posgaigian.
Maria y José Maria

2

Adan formadusan
lenengo lurrian
pecatu eguin eban
paradiso eternalian

3

Limborian egosan-
(deyes
bost milla urtian
Jauna serutic lurrera
jatzi seitian

4

Erabaguia isan san
Trinidad altuan
biarsala biraldu
lurrera aiñguerua.

5

Biarsala biraldu
lurrera aiñguerua
erremediatzeco
Adanen pecatua.

6

Marabilla aundibat
serutican lurrera
consebidua isanda
seruco erreguïña.

7

Egusqui dibinala
gaubaren gauberdian
etorrisan mundura
guisonaren antzian.

8

Trinidad altuco
bigarren personia
transformaduric dago
Belenengo portalian

9
Edegudirade seruan
ate diamantescuac
arisequin batera
bentana isarrescuac.
.....

10
Nabegadua isansan
bederatzí illabetian
mundu onetaco
ichasuaren ganian.
.....

11
Esdator guisonetatic
es guisonaren obratic
elegiduric eguan
eternidatic.
.....

12
Guisonic esdot esagun
lurraren ganian
eguinic deucat boto
ni jayo nintzarian.
.....

13
Espiritu santu jaunac
emonic arguia
beti consebidua
isanda garbia.
.....

14
Esdeucat nic erruric
banas ni esclabia

Jaunac ordenatudau
ni onelan isatea.
.....

15
Egusquia noladaguan
cristalaren artetic
semia jayodala
amaren sabeletic.
.....

16
Cristalian arguia
besela pasatu
eguinda guerobere
dontzella guelditu.
.....

17
Nor emen mensa-
(jerua
San Gabriel aifguerua
eguingo dabena ondo
Jaunaren aguindua.
.....

18
Josepe dichosua
yada demporia
seugandic jayoteco
Jesús salbadoria.
.....

19
Otzaren icaras dabil
jayodan infantia
beren amac dirantzo
isi ene semia.

20

Astua eta idia
deucas aldamenian
arnasas berotzeco
ostuten danian.

.....

21

Astua eta idia
jaten egonsanian
seña euquela
biyaren bitartean.

.....

22

Astua arrantzia
idiac arnasia
alan berotzen eben
jayodan infantea.

.....

23

Iru erregue maguac
ain bida lusian
milagrosamentian
ajuntadu sirian.

.....

24

Iru erregue maguac
ain bida lusian
bacoachac eroyela
beren presentian.

.....

25

Iru erregue maguac
ain bida lusian

ostatua artu eben
ain eche probian.

.....

26

Belenengo portalera
eldu sirianian
ango saldiaren otzac
espantadu seuquian.

.....

27

Aurra adoratzer
iru erregue emen
icusiric pobresan
arritu siraden.

.....

28

Erregaluac bere
ecarri situan
urria, intzentzua,
mirra, irugarren.

.....

29

Gasparrec intzentzua
Beltzorrec urria
Baltasarrec eroyan
mirra presiosua.

.....

30

Erodesec esan eutzen
erreguiari gabian
emendic satoesela
ni bere juan neitian.

.....

31

Erodes coitadua
burladu seitue
erreguiac juandira
seu icusi bague.

.....

32

Erodes erreguia
faltzo traidoria
seren damueban
Cristoren jayotzea.
Mariay José-José Maria

Lau eguneraco

33

Mendian egosala
jagoten ganaduac
manifestadu yacon
serutic aiñgueruac.
*Jesucristo hay que boni
to bueu niño, Jesucristo*

34

Corriañ los pastores
dejando al ganado
que daban grandes vo
(ces
Jesús sea adorado.

.....

35

Chit egun dichosua
degu egun berria
segaitican dan Jesus
gugana etorria.

36

Ay se consuelua
oraguin deucagun
jaungoicuaren semia
etorrida lagun.

.....

37

Gustioc biardegu
disposiñuan jarri
graciac emoteco
gaur jayodanari

.....

38

Eracutzi biardau
sereguin biogun
beraren alabantzac
cantadu desagun.

.....

39

Jose emandiotte
Mariari esposo
biac isandeitesen
Jesusen guraso.

.....

40

Carguan jarri dira
Jose eta Maria
amparzeco seme
estima garria.

.....

41

Virgínia arritusan
agur eguin eutzenian

onelango mensajia
noc ete lequian.
.....

42

Agur dontzeilia
gracias betia
seure isenadosua
Maria Virgíña
.....

43

Dontzella galantori
orbanic baguia
seure isenadosu
Maria Virgíña.
.....

44

Arcangel San Gabriel
anunsiadoria
escaisus espantadu
ain jente umildia.
.....

45

Dempora desiadua
etorri sanian
ya gara eldu
Cristoren echiañ.
.....

46

Josepec dirantzo
Maria Virgíñari
nos declaratuco daben
esperantza gueuriori.
.....

47

Biac Belenera
dute caminatu
ara eldusiria nian
ostatuaren itandu.
.....

48

Esquepe etze chubaten
dagos atiac joten
guisona bentanara
chito neques urtatten.
.....

49

Guisonac bentanatic
gau deu erantzutzen
norda ordu onetan
atiac joten.
.....

50

Nor eta nor bisida
etzechu sar orretan
nor eta ser gurasendu-
(que
Jaunaren ordu onetan.
.....

51

Ara or etzechu sar bat
uriaren acabuan
abiriac eta baño
estira sartzen barruan.
.....

52

Suchubat eguiten asi

pesebre basterrian
aisiac eta biotzac
lenera eroyan.

53

Seña billosic dago
lur otzaren ganian
amia Belennico
negarres aurrian.

54

Billosic basagos bere
etzara seu pobria
seruetan josiriadago
seuretzaco erropia.

55

Bedarrac almueda
ognetzat pesebria
aurrian Belennico
beren ama umildia.

56

Pobresan isandusan
Jesusen Jayotza
batetican illurreta
bestetican isotza.

57

Amiac artueban
semia besuetan
semia eta Jaungoicua
situan adoretan.

58

Jose eta Maria
euren Jesusarequin
duas Belenera
cumplietan leguiaquin.

59

Obligasiño bagaric
cumplietan leguia
guri eracustiarren
seruco bidia

60

Ara gura badosu
ortisic dago bidia
seren justoadan
Cristoren leguia.

61

Arantzaren arteco
jayasarian
cumpla originala
mancha baguia.

62

Seme Jauna deaquela
urre aurdui eder baten
beren ama Belennico
aurrian adoratzen.

63

Sacramentu santu Ja-
(une

celebradu sanian
isena imini eutzen
Jesus Salbadoria.

64

Emen esan badogu
berbaric deungaro
elesama santiari
parca esque nayago.

**Asquenengo egune-
raeo**

65

Ogueta laugarrena
degu abenduan,
deseo guenduana
lagradu guenduan.
*Bai Belenen eta bart
Belenen jayoda Jesus
Nasaren*

66

Gabeco amabiac
jodaben orduan
gueure Salbadoria
jayoda munduan.

67

Belenengo portalian
estalpe batian
jayoda Jesus ona
ganaduen artian.

68

Belenengo urian
gabongaubaren erdian
Birgiña Santisimia dago
consolasifo aundian.

69

Mundu gustia dago
gaur gosos beteric
semia jayodalaco
mancha bagaric.

70

Goico mendietatic
pastoriac datos
esanic aingueruac
jayo dala Jesus.

71

Pastore santu birtuo
(suac
baliu saguigus gaur-
(emen
bar arratzian ser pasa-
(tudan
conta desagun Belenen

72

Corraletaco ardiac bere
jantzan ebisan orduan
guere Salbadoria
jayodalaco nunduan.

73

Jesus dibino gauba-
(ren otza
jaustendan inetasise
erlojubisen erdisan o-
(nelan badu
ilda ganadu gustise.

74

Ortistic gora ninoyela
ospitelechu sar baten
aita San Josepe topadu
(neban
astochua chalmatzen.

.....

75

Nasaretaco templuan-
(dago


dama edeabat jarric
isena bere Maria deute
ondo gracias b.teric

*Bai Belenen eta bart
Belenen jayoda Jesus
Nasaren.*

76

**Gura dituanac cantau
Jesusen alabantzac
emen imiten ditu
Pedro Garratzac.**







IMPRENTA Y LIBRERIA

GOITIA y COMPAÑÍA-GUERNICA